

# POTXOLOKA

## Intxaurrak edo hurrak 'potxolo' edo zulo batera sartzea



### Zer behar da?

Klariona, lurlean marra egiteko. Eta borobilak diren objektu txikiak (intxaurrak, hurrak, kanikak, gerezi hezurrak...) eta zulo bat: "potxoloa". Txapela ere erabil daiteke zulo moduan (ikus argazkian).

### Nola jolastu?

Potxoloka jolasteko hainbat modu daude. Hona hemen sinpleenetako bat:

Kaniketan bezala: intxaurrak/hurrak lurlean egin dako zuloan sartzen saiatzea, hatzarekin bultzatuta edo airean jaurtita. Sartuz gero, beste jokalaria batzuei bidean geratutako intxaur/hurrak irabazten ditu. Txandaka egiten da, aldiko intxaur/hur bana jaurtitzen.

Beste jolas bat, pixka bat konplexuagoa, ume handixeagoentzat:

1. Txapel/txano bat erabil dezakegu "potxolo" moduan; lurlean jarriko dugu, eta hurrak bertara jaurti. Zaku forma eman, hurrak errazago sar daitezten.
2. Jokalari denek hur kopuru bera izango dute hasieran: adibidez 15 hur. Nahi beste jokalarik parte har dezakete.

3. Marra bat marraztu, potxolotik 2-3 pausora. Txandaka jaurtiko dituzte hurrak jokalariek handik potxolora (jaurtialdi bakoitzerako hustu egingo da). Hurrak esku bakarrarekin jaurti behar dira, eskukada batean. Ez da beti hur kopuru bera jaurtiko.

Hauxe da araua: potxolora pareka sartu behar dira hurrak (2 edo 4); bestela, jokalariek bi hur galduko ditu (potxolora batean sar ditzakegu). Lehenengo,



# POTXOLOKA

4 urte+

bi hur jaurtiko dituzte jokalariek. Gero hiru, ondoren lau... Bostera iristean, berriro birekin hasiko dira. Jaurti aurretik, abisua emango dute:

*Bi-bi!* (2 hur jaurti eta 2 sartu behar dira potxoloan)

*Hiru-hiru!* (3 hur jaurti eta 2 sartu)

*Lau-lau!* (4 hur jaurti eta 2 edo 4 sartu)

*Bost-bost!* (5 hur jaurti eta 2 edo 4 sartu)

4. Jaurti beharreko hur kopurua ez duen jokalaria erretiratu egingo da. Jokalari bakarra geratzen denean amaituko da jolasa: hura da irabazlea, eta baita hur gehien dituen ere! Aukera bat: hurrak zuritu eta denen artean jatea.



## Iturria

Hainbat lekukok eman digute jolas honen berri, besteak beste Eskoriatzan, Eibarren, Bergaran, Antzuolan eta Oñatin. Bereziki Elorrioko Pantxi Treviñoren azalpenak hartu ditugu aintzat jolas hau proposatzeko. Intxaur eta hur sasoiko jolasa da: umek "potxolo" bat egiten/bilatzen zuten, eta hara jaurtitzen zituzten. Jolas honek hainbat izen ditu, herrian herri desberdinak: *potolo*, *potxola*, *txolo*, *potxi*, *botxo*, *potxo*, *txitxilinpotxo*, *txikotxa*... Eskoriatzan *potxolo* jaso dugu, *potxoloka* jolastea. Intxaurrak eta hurrak kaniken aurrekariak dira.

